

# **Lehen eleberrigintza urbanoa: Saizarbitoria kasu paradigmaticoko gisa**

**Primera novela urbana: Saizarbitoria como caso paradigmático**

**Premier roman urbain : Saizarbitoria comme cas paradigmaticque**

**First urban novel writing: Saizarbitoria as a paradigmatic example**

MAJUELO, Irati  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2021-01-23  
Noiz onartu: 2021-03-09

*Euskera*. 2020, 65, 2. 481-515. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Euskal eleberrigintzan hiriaren lehen irudikapenen jatorria eta nolakotasuna aztertuko du artikulu honek, Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969) eta *Ehun metro* (1976) liburuen bidez. Irudikapenok 60ko eta 70eko hamarkadetako testuinguru politiko-sozialera lotuta egonik, ez dute Mendebaldeko literatura hegemonikoaren parametroekin bat egiten, ez denboran ezta nolakotasunean ere. Eredu horien aurrean sortutako bide alternatiboak bilatuko dira Saizarbitoria lehen eleberririk hirian kokatzeko egindako hautuan.

**Gako-hitzak:** euskal literatura, eleberria, hiria, Saizarbitoria.

Este artículo analiza el origen y las características de la primera imagen de la ciudad en la novela en euskera, a través de los libros *Egunero hasten delako* (1969) y *Ehun metro* (1976). Estas imágenes, estando sujetas al contexto socio-político de las décadas de 1960 y 1970, no coinciden ni en el carácter ni en el tiempo con los parámetros de la literatura hegemónica occidental. Son caminos alternativos a esos modelos los que buscará Saizarbitoria en su apuesta por situarse en la ciudad.

**Palabras clave:** literatura vasca, novela, ciudad, Saizarbitoria.

Cet article analyse l'origine et les caractéristiques de la première image de la ville dans le roman en basque, à travers les livres *Egunero hasten delako* (1969) et *Ehun metro* (1976). Ces images, qui sont liées au contexte socio-politique des années 60 et 70, ne coïncident ni dans le caractère ni dans le temps avec les paramètres de la littérature hégémonique occidentale. Saizarbitoria recherche des chemins alternatifs à ces modèles pour se situer dans la ville.

**Mots-clés :** littérature basque, roman, ville, Saizarbitoria.

This article examines the origins and quality of the first urban representations in Basque novels in Saizarbitoria's books *Egunero hasten delako* (1969) and *Ehun metro* (1976). These representations, linked to the political-social context of the 60s and 70s, do not correspond to the parameters of hegemonic Western literature in time or characteristics. Alternative ways of looking at these models will be examined in Saizarbitoria's choice to set his first novels in the city.

**Keywords:** Basque literature, novel, city, Saizarbitoria.

## Sarrera

Sarri esan da euskal literatura berantiarra izan dela (eta hala ulertu du askotan euskal literaturak bere burua), garatu gabea edota beste literaturen mailara iritsi ez dena, besteak beste, hiriak ez duelako presentzia nabarmenik eduki 60ko hamarkadara arte. Ikerlari ugarik ikusarazi duten gisan, euskal literaturaren historiara jotzea baino ez dago ohartzeko hiria ez dela euskal eleberrigintzaren espazio naturala izan XX. mendearen bigarren erdialdera arte (Retolaza, 2005; Aldekoa, 2008; Apalategi, 2008); hala ere, egitate horrek arrasto sakona utzi du gure eleberrigintza ulertzeko eran, “berantiar” edota “atzeratu” gisa irakurri baita sarri. Aldekoak (1998: 11) agerian uzten duenez, Sarasolak (1971), Lagasabasterrek (1986) zein Otegi (1976) ondutako ikerketetan edota literaturaren historietan Mendebaldeko tenporalizazioekiko atzerapena jo izan da euskal eleberrigintzaren ezaugarri nabarmenentzat. Argi dago ezezagunarekiko urruntasun eta ezinegon sentimenduez baldintzatuta iritsi zirela euskal literaturaren eta hiriaren arteko harremanak XX. mende hasierara, eta hurrengo hamarkadetan ere, landa eremuan gotortutako gizarte batek errefusatutako espaziotzat hartu zela hiria. Mendearen bigarren herenetik aurrera, ordea, aldaketa igartzen hasten da adierazpen urbanoago baterantz, aldaketa espazialaz gain begirada estetikoaren eraldaketa gisara funtzionatuko duena.

Hortaz, interesgarria da ikustea euskal eleberrigintzaren hiritartzea zein testuingurutan hasten den, eta nola ematen dituen Saizarbitoriak horretarako lehendabiziko pausuak. Eleberrigintzaren modernizazio eta urbanizazio prozesu horren azterketak, halaber, Mendebaldeko literatura hegemonikoaren ezaugarri urbanoek ezarritako marko teoriko bat errebisatzeko beharra erakusten du, literatura txikietan irakurketa gatazkatsuak sortzen baititu ezinbestean. Ildo horretan, hiri-irudikapenen eredia zalantzan jarriko da, baita Mendebaldeko literaturak ezarritako erritmoa eta erdigune-periferietan oinarritutako botere-harremanak ere. Hori dela eta, literaturaren historiaren bazterrean dauden literatura txikiak islatzeko formula posibleak bilatuko dira Saizarbitoriaren hiriaren irudikapenetan. Horretarako, 60ko eta 70eko hamarkadetan jazotako aldaketa sozial eta kulturalaz gain, idazlearen lehen bi eleberririk aztertuko dira. Lana liburuen analisi espazialean zentra-

tuko da, baina betiere espazioak traman hartzen duen posizio diskurtsibo eta sinbolikoa aintzat hartuta, eta argitaratze-garaiaren testuingurua alde batera utzi gabe.

## 1. Euskal eleberrigintzaren eta hiriaren arteko harremana

Garrantzitsua da XX. mende hasieran Euskal Herriko hirien morfologia zein zen eta euskal idazleek harekiko zeukaten jarrera ezagutzea, euskal eleberrigintzaren eta hiriaren arteko harremana hobeto ulertzeko. XX. mendeko, industrializazioak eta kosmopolitismoak oinarri sendoak zituen Europako hiritarren pentsamenduan, baina horrek, ordea, talka nabarmena egiten zuen Euskal Herriko errealitatearekin, baita euskal literaturak Mendebaldeko literatura hegemonikoekin ere. Frantzia, Alemania edo Ingalaterrak –eta are Espainiak, nahiz eta gainerako potentzia handien parean aldez landatarragoa izan– euren mundu literarioa modernitatean berreraiki eta hirietan ardaztua zuten, hiriburuetan, bereziki. Estatu-hiriburuak industrialki garatutako hiriak ziren ordurako, pertsona eta merkantzien joan-etorri etengabea gizatzen zuten erdiguneak. Literaturan, XVIII.-XIX. mendeetako aldaketa espaziala sendoturik, sorkuntzarako espazio bilakatuak ziren hiriak, literatura modernoak garatzeko inspirazio iturri. Hortaz, XX. mendearen hasierarako, Europako eta AEBtako literatur sistemek euren modernizazio eta urbanizazio prozesuen agertoki eta subjektutzat zituzten metropoli handiak. Paraleloan eta elkar elikatuz garatu ziren hiri modernoak eta haren irudikapen literarioak, eta elkarrekintza horren ondorioz bilakatu zen hiria modernitatearen *locusa* (Sharpe & Wallock 1987).

Hirien morfologiaren eraldatzeak aldaketa sakonak eragin zituen, hortaz, Mendebaldeko gizarte tradizionalan, eta bizimoldea, ohiturak eta sinesmenak errotik transformatu. Metropolia izango da aurrerantzean modernitatearen objektua, eta horrek sortuko du hausturarik handiena. Hiri modernoaren aurretik, hiri klasikoak eta erromantikoak irudikatzerakoan naturarekiko mimesia egiten zen, Natura baitzen artearen benetako objektua. Modernitatearen etorrerarekin, ordea, Natura ukatu egin zen eta mimesia zalantzan jarri, metropolia bezalako giza entitate batek ez baitu berehalako mimesirik

onartzen (Azúa 1979: 136). Bilakaera horretan, baina, talka handiak izan ziren ezinbestean, mundu landatar tradizionalaren eta jaiotzen ari zen mundu urbanoaren artean. Hiri modernoak sortu zenetik existitu da aurkakotasun hori inguru baten edo bestearen bertute zein akatsak nabarmentzeko (Williams 2001: 75), baina batez ere hiri-eremuen eta izaera urbanoaren hedapenak eragin zuen erresistentziaren ondorio da. Bizi esperientziaren desdoinkuntza horrek erantzun soziopolitikoak sortu zuen bai gizarte mailan, baina baita estetikan ere, modernitate estetikoari bide emanez. Talka horiek, beraz, literaturarako gai izan ziren sarri, hiria espazio literario bihurtzeko bidean zelarik. Munstro kontrolaezin baten modura irudikatu zuten eleberri eta poemetan, besteak beste Jerrold, Balzac, Dickens, Coleridge edota Wordsworthek, eta hirira migratutako nekazarien eleberriak ugaritu ziren, esate baterako *Sybil* (1845), *Mary Barton* (1848), *Hard Times* (1854) edo *Felix Holt* (1866), zeinetan metropolira halabeharrez bizitzera joandako nekazariak moralki eta fisikoki suntsiturik amaitzen zuten hiri industrialaren erritmo eta bizimoldearengatik (Azúa 1979; Matas 2010). Baina nahiz eta literaturaren historia hegemonikoak fase hori bereziki XIX. mendean kokatu, ukalezina da hiriarekiko talka zein ondorengo onarpena ez dela modu uniformeetan gertatu munduko literaturetan.

Landa eremuaren eta hiriaren arteko gatazkak bizirik jarraitzen du XX. mende hasieran Euskal Herrian eta, ondorioz, literaturan. Mende hasieran ez da kontzientzia urbanorik igartzen euskal idazleengan, eta ohiturazko eleberriak islatzen du korapilo horrek eragindako ezinegona (Agirrerren *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912) gailentzen dira batez ere, zeinen itzal luzeak ondorengoak utzi zituen hurrengo hamarkadetan: *Uztaro* (1937), *Joanak joan* (1955), *Arranegi* (1958)). Argitaratzen den apurrak lotura hertsia dauka landa eremukiko edota arrantzale herrietako errealitateekin, izan ere, paisaia eta ohitura horiek edertu eta, bide batez, tradizioa, moral kristaua eta nazionalismoa bultzatzeko erabiliko dira. XX. mendearen hasieran, euskal literaturaren produktzioa txikia da zinez, irakurleak ere urri, eta bere txikitasunean imaginario landatarrean hartzen du babes. Kostunbrismoak bere sentitzen zuen landa- eta itsas-bizitzaren idealizaziora jo zuen, inguru industrializatuetan antzematen ari ziren eraldaketa eta gatazkak islatu beharrean (Aldekoa 2008: 166).

Kontrajarria irudi lezake, industrializazio-prozesua XIX. mendearen amaieran hasia baitzen, eta Espainiako Gerra Zibila hasi bitarteko urteetan euskal gizartea gutxi-asko industrializatu baitzen. Nahiz eta hasiera batean oso fokalizaturik egon Bizkaian, Somorrostroko meatzeetan, siderurgian eta Bilboko portuan, XX. mendearen hasierarako Gipuzkoan enpresa txikiek gero eta garrantzi handiagoa hartu zuten, maila apalagoan bazen ere, eta papergintzak, ehungintzak, zapatagintzak eta armagintzak (gerrei esker indartua) hiriburutik kanpoko herriak handitu, industrializatu eta guztiz eraldatu zituen (besteak beste Bergara, Eibar, Azpeitia). Argigarria da industrializazio-prozesua hiriburutik kanpoko herrietan gertatzea, Donostiak turismoan oinarritu baitzuen bere ekonomia. Araban, Nafarroan eta Iparraldean nekazaritza gailendu zen XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, nahiz eta hainbat alor hazten hasi (esaterako, zapatagintza Lapurdin eta Maulen; edo nekazaritza industria Nafarroan eta Araban: azukre-lantegiak eta kontserba-fabrikak). Hala ere, 20ko eta 30eko hamarkadetan gutxinaka handitzen joan ziren lurralde osoko industriak, Espainiako Gerra Zibilak eten arte. Hori dela eta, 50eko eta 60ko hamarkadetan hartu zuten berriz abiada industriak, eta orduan eragin zituen eraldaketarik nabarmenenak hiriguneetan, herritarren bizimodu, pentsamolde eta praktika kulturalak transformatuz (Fusi 1975; González Portilla 1988, 2015; eta beste hainbeste historialarik ondo dokumentatu duten bezala).

Hala ere, euskarak, edo hobeto esanda, euskarazko giro ikasi eta intelektualak ez zuten bere lekua aurkitzen hiri-eremuan. Izan ere, Unamunok 1901ean Bilbon ospatutako Lore Jokoetan egindako hitzaldiak (“El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida. (...) En el milenario eusquera no cabe el pensamiento moderno; Bilbao hablando vascuence es un contrasentido.” Unamuno in Agirreazkuenaga, 2002: 13) polemika piztu bazuen ere, hamarkadak behariko ziren oraindik Bilbori buruz euskaraz irakurtzeko. Hala, nahiz eta Bilbon mende hasieran euskal nazionalistek zuzendu eta finantzatutako *Hermes* aldizkariaren inguruan hiritartasun modernoaren alde egin zuten idazle ugari (Unamuno, Pío Baroja, Ramiro de Maeztu, Ignacio Zuloaga), hiriaren garai oparoa probesturik, ez zen apenas ezer idatzi euskaraz (Aldekoa 2008: 159). Inguru urbano baten testuinguruan girotutako edota

hiria erdeinurik gabe hartzen zuten euskarazko eleberriak pentsaezinak ziren. Euskal literatura eroso zegoen landa eremuko paisaia ezagunetan, tradizioarekiko eta naturarekiko harreman estuan, Lore Jokoetarako proposatutako gaiak zein jasotako testuek agerian uzten zuten. Balore tradizionalak arriskuan ikusteak, edo aldaketa handi baten aurrean egoteak, hiriarekiko eta industrializazioarekiko beldurra eta demonizazioa sortu zuen gizarte landatarrean, aurretik Ingalaterran edo Frantzia gertatu gisa. Jadanik XIX. mendean kaletartzearen eta proletariotzearen kontrako erresistentzia bizi izan zen Euskal Herrian, baserriko bizitzak duintasun eta independentzia pertsonala sinbolizatzen baitzuen industrian besteen menpe lan egitearen aldean (Sarrionandia 2010: 369). XX. mendera iristean ere, industrializazioak landa eremuan eragin zituen lekualdatzeek eta langile klase berriak berekin zekartzan ideario berriek joera kontserbadorea agerian utzi zuten garaiko idazle eta intelektualen artean.

Agirrerren eleberriek, zein haren ostean imitazioz idatzitakoek, joera horiek jartzen dituzte agerian: baserriko ohituren goraipamena, euskararen eta erlijioan gotortzea, emakumeekiko gutxiespena, aurrerabide teknikoei (adb. burdinbidea) kontra egitea, ideia “modernoen” arbuioa, eta Ameriketara joatea euskal balio zintzoen galerarekin lotzea, besteak beste (Aldekoa 2008: 171). Giro orokor horren beste adibide bat da Arturo Campiónen *La Bella Easo* (1909) eleberria, gaztelaniaz idatzi arren, hiriak euskal munduan zeukan konnotazio negatiboa argi erakusten baitigu. Campiónen iruditeria euskaldunaren eredu zen nafar mendialdeko herriak hustea deitoratzen du, familia atzean utzi eta kulturalki deserrotu beharra hirira edota Ameriketara lanera joan behar izateagatik. Hiriak, beraz, balio moral berrien espazioa irudikatzen zuen, perbertsiorako eta galbiderako bidea zen, eta euskal literaturaren talaia landatar tradizionaletik interes gutxi edota beldur gehiegi eragiten zuen eremua zen. Pentsamolde tradizionalaren atzean egon liteke, beraz, euskal literaturarentzat hiria eremu arrotz eta ezezaguna izatea, bide batez euskararentzat ere hala zen heinean.

Testuinguru horretan, hala ere, zaila litzateke euskal literatura pentsamolde tradizional eta kristautik kanpo irudikatzea, ordura arte eginiko ibilbideari behatuz gero. Nahiz eta Euskal Herria industrializazio-prozesu batean egon, eta ondorioz, hirien hazkuntza eta gizartearen bizimodu zein

ohituretan aldaketa nabarmenak sumatu, euskal hiriek ez zioten landa-eremuarekin harreman estua zuten probintzia hiriburu izateari utzi, ez ziren ez tamainan ez izaeran metropoli handi bihurtu. Horrez gain, bai hiriko bizitza, bai alfabetatze- eta hezkuntza-sistemak erabat aldendurik zeuden euskal mundutik. Intelektual eta, bereziki, elizgizonen artean euskararen aldeko ekimenak bultzatzen ziren, hala nola Euskaltzaindiaren sorrera (1919) eta Lore Jokoak, baina balizko irakurleen kopurua oso urria zen. Euskaraz idazten zuten idazleak gutxi baziren, irakurleak zer esanik ez. Eleberrien protagonista ziren nekazari eta arrantzaleak ez ziren euskal literaturaren irakurle, are gutxiago hiri-eremuko merkatariak eta proletarioak. Ez zegoen euskaraz irakurriko zuen burgesia indartsurik. Jauntxoak, intelektualak eta elizgizonak ziren irakurle potentzialak, eta horietatik, euskararen inguruan (eurek sortutako Lore Jokoen eta aldizkarien baitan) biltzen ziren gutxi batzuk har ditzakegu irakurletzat. Zalantzarik gabe, lotura zuzena egiten zuten euskal literaturaren eta euren balio nagusiak ziren tradizionalismoaren (baserria, familia), moral kristauaren (fedea, Elizarekiko leialtasuna) eta nazionalismoaren (euskara, foruak) artean. Euskal eleberrigintza ez zen hiri-eremura hurbildu, azken finean bere irakurleek bultzatuta eta horiei begira idazten baitzen. Sarrionandiak (2010: 432) adierazi gisa, irakurle gutxi izateak euskal literatura zeharo baldintzatu du XX. mendean barneratu arte. Hizkuntzaren –eta berekin dakarren inguruaren– marjinalitateak bestelako testuinguru batzuetan eman ez zen hutsune bat eragin zuen euskal munduaren eta mundu hiritarraren artean.

Berez, Matasek (2010: 229-230) adierazi gisa, ezin daiteke esan literaturaren ildo urbanoa industrializazioaren ondorio zuzena denik, baina bai, ordea, harreman estua duela aurrerapen materialek bultzatutako praktika kultural berriekin, eta ordura arte existitzen ez zen jendetza urbano baten-gana iristeko ahalmenarekin. Hau da, praktika kultural berri horiek eta hiri moderno jaio berrien erritmorra moldatutako jende saldoaren esperientziak eragindako eta eskatutako estetikaren ondorio da eleberrigintza urbanoa, baita aurreko ohitura eta sineskeriekin hausteko ahaleginaren ondorio ere. Euskal literaturaren kasuan, ordea, esan daiteke industrializazioak izan zuen berehalako lehen eragina kontrakotasuna suspertzea izan zela, hiri modernoak eta eleberrigintza modernoak elkar elikatu beharrean. Hala, industria-



lizazioaren aurkako usteek, hiriekiko beldur edo arbuioek zein literaturan Europatik zetozen ereduetan bere burua ezagutzeko arazoek XX. mendearren erdialdera arte iraun zuten.

Eleberri kostunbristekin hartutako norabideak pentsarazi lezake, literaturaren historia hegemonikoak ezarritako erritmoei eta irizpideei jarraika, Casanovak (2001: 235-237) arrazoi zuela literatura txikien aukera murritzei buruz ari zenean, eta euskal literaturak ere exotismorako edo asimilaziorako bide zuzena hartua zuela. 60ko hamarkadatik aurrerako literaturak, ordea, norabidea aldatu eta baieztapen horiek zalantzan jarri zituen. Izan ere, auresuposatutako bide horri uko egin, eta eleberrigintza moderno eta urbano bat aurkitzeaz gain, Euskal Herriko testuinguruan fokua jarri eta hiria irudikatzeke era berezkoak azaleratu zituen. Ezin da ukatu euskal eleberrigintzak tradizio kostunbristaren eta moral kristauaren zama izan dituenik XX. mendean ongi sartu arte, errealismoari eta eleberri modernoari atea itxiz (Aldekoa 2008: 167). Literatura marjinal bat izateak ondorio nabarmenak utzi ditu: XX. mendeko bi gerrateen artean, European eleberri modernoan eraberritu zelarik, euskal literatura kostunbrismoan murgildurik zegoen. Hortaz, euskal eleberrigintzak ez du bizi izan XIX. mendeko errealismoa eta naturalismoa, ez eta XX. mendeko lehen herenean gertatu zen nobelaren eraldaketa sakona ere, teknika narratiboen berrikuntzaren bidez kontakizuna hankaz gora jarri zuena (hala nola Proust, Woolf, Joyce).

Euskal mundua Mendebaldeko modernitatetik urrun geratzen bada garai horretan, ulertu behar litzateke euskal eleberrigintzak bestelako tenpus batzuk izan dituela, eta ezin dela periodizatu eredu mendebaldar hegemonikoaren arabera harekiko begirada kritikorik eraiki gabe, tenporalizazio horrek berez dakartzan botere-harremanak erreproduzitzen. Europako literatura nagusien erritmoarekiko anakronismoak errotik baldintzatu du euskal literaturaren hiritartzea nola irakurri den gerora: literatura berantiar eta atzeratu gisa hartzean, Mendebaldeko tempusarekiko menpekotasunean alderatzen da beti, eta ondorioz, erdietsi beharreko normalitate baten logikan ulertu da euskal eleberrigintza, besteengana heltzeko lasterketa amaiezinean. Ildo horretan, ikerketa interesgarriak egin dira, hala nola hiriaren gabeziak Apalategik (2008) proposatutakoak, kasurako. Hala ere, desdoikuntza tenporal horrek, euskal literaturaren izaera marjinalarekin loturan,

hiria irudikatzeko formula alternatiboak bilatzera bultzatu duela ere agerian geratu beharko litzateke.

Jadanik 50eko hamarkadan, industria bizkortu zen eta lekualdatze nabarmenak egon ziren, bai landa-eremuetatik hiriburu eta hiri ertainetara, bai lan bila Euskal Herrira joandako migranteen artean. Aurreko mundu tradizionalarekiko haustura gertatzen ari zen zentzu ugarritan, eta oinarrien asintze horrek bere isla topatu zuen artearen esparruan ere, gerraosteko tentsioek eta hiritartzeak markatutako euskal identitate berri baten bilaketa hasi zuten artista gazteei esker. Literaturan urte batzuk behar izan ziren oraindik hiriaren edo espazio urbanoaren zertzeladak sumatzen hasteko, hala ere, Arestik bide hori ireki zuen apurka-apurka poesian, eta baita zenbait narrazio labur eta bestelako idatzietan ere. *Jainkoa jai* da *Otxarkoagan* (1962) ipuinean, besteak beste, Bilbo zen hiri-eremu gatazkatsua ekarri zuen paperera, eta langile eta burgesen arteko klase gatazkan kokatu zuen hiriaren irakurketa, langile auzoetako migrazioaren eta jauntxo abertzaleen arteko talkan (Amezaga 2016: 185-186). Euskarak apenas lekurik zuen eta gaztelania gailentzen zen Bilboz ere aritu zen, hala nola *Bilbaoko kaleak* poeman (Aresti 1967). Tamalez ezin dugu Arestiren lana baliatu nobela urbanoan sakontzeko, baina eredu eta inspirazio izan zen ondorengo euskal idazle gehienentzat, baita Saizarbitoriarentzat ere, eta bere diskurtsoaren kokapenak eta espazio-aldaketak eragina izango zuen ondorengoengan ere.

## 2. 60ko eta 70eko hamarkadak: espazio aldaketarako arrakala

60ko hamarkada funtsezko garai bihurtzen da euskal literatur sistemaren modernizazio eta urbanizazio prozesua ulertzeko, eta bide horren baitan kokatzen dira Ramon Saizarbitoriaren lehen lanak. Aipatu gisa, Gabriel Aresti giltzarri izan zen euskal literatura berritzen hasteko eta ondorengo idazleei bide berriak irekitzeko. Gainera, Espainiako Gerra Zibilaren ondorenak eta Francoren errepresioak bultzatuta, Euskal Herrian sortutako erresistentzia mugimendu indartsuak euskal nazioa eraikitzeko nahia indartzeaz gain, bai hizkuntzaren defentsan, bai kulturaren bide propioa urratzeko beharra azalarazi zuen. 50eko hamarkadatik aurrera, aurretik espero gabeko produkzioan

lehertu zen euskal kultura, baina ez zen tradizioa mugatu, ez zuen aurreikusitako programarik jarraitu, garaiko errealitatea sortu eta eraldatzeari ekin zion nazioarteko esnatze politikoeekin bat eginik (Ansa 2019: 37-38). Izan ere, politikan, gerraostetik, eta ETArekin sorrerarekin batera intentsitate handiagoz, talka nabarmena gertatzen ari zen nazionalismo tradizionalaren (EAJk gidatua, katolikoa, burgesa) eta nazionalismo eraberrituaren (ETAk ordezkatua, gaztea, sekularizatua, langile klasearen gertukoa) artean, hurrengo hamarkadetakoko pulsu politiko eta soziala markatuko zuena, eta belaunaldi berri bat ekarriko zuena protagonismo politiko eta kulturaren lehen lerrora (Aldekoa 2015: 19). Mundu zaharraren eta berriaren arteko gatazkak euskal identitate tradizionala zalantzan jarri eta formula berriak aurkitu eta sakontzeko arrakalak sortu zituen. Literaturaren kasuan, jadanik 60ko hamarkadan sarturik, idazle belaunaldi berri batek –hala nola “1964ko belaunaldia” deiturikoa: Saizarbitoria, Lete, Arregi, Sarasola–mahai gainean jarri zuen testuingurura egokitzeko eta modernizatzeko beharra, eta horrek hiriari buruzko problematika suspertu zuen, baina, oraingo honetan, euskal letrak urbanizatzeko intentzio argi batekin.

Izan ere, 60ko hamarkadan literaturaren hiritartzea erraztu zuten zenbait baldintza sortu ziren, aurreko garaiekiko kontrastean euskarazko praktika kultural bat jaiotzea eragin zutenak, horien artean garrantzitsuena euskara batuaren sorrera, eta horri lotuta ikastolen ugaltzea eta komunikabideetan hizkuntzak hartu zuen presentzia. Ondorioz, euskararen aldeko mugimenduak prestigioa eta bultzada eman zion gutxinaka haziz zihoan ekoizpen literarioari. Euskarak, beraz, bere lekua egin zuen aurretik apenas zapaltzen zuen espazioan, hirian, eta gutxinaka presentzia hori literaturan ere islatu zen. Halaber, gerraosteko giro itxiak eta gatazka nazionalak munduan gertatzen ari ziren emantzipazio prozesu eta mugimendu iraultzaileekiko identifikazioa piztu zuen euskal gizartean, bereziki belaunaldi gazteengan. Espainiak ezarritako zentsurak Euskal Herriko lurralde zabal batean indarrean jarraitzen zuen, eta horrek argitalpenak urriak izatea eta atzerriko nobedadeak ere berandu eta gutxi iristea eragiten zuen. Frantzia, ordea, kulturaren erreferente nagusia zen oraindik, eta handik iristen ziren haize berriei adi jarraitzen zieten belaunaldi gazteek, baita kultura pop anglo-amerikarrari ere (Aldekoa 2015: 95-96). Horrek Europako literatur korrante nagusiak

idazle gazteengana gerturatzen lagundu zuen, eta bilaketa estetiko moderno betean sartu ziren, 60ko eta 70eko hamarkadetako lanek erakusten dutenez.

Beste hitz batzuetan, espazio urbanoek arrotz izateari utzi zioten gutxina-ka eta euskal kulturak bere lekua bilatu zuen horietan, belaunaldi berriekin batera berrituz. Sarri modernizazio hori prozedura literarioen eraberritzearekin lotu izan da soilik, eta sinkronizazioaren kontzeptua erabili da Europako literaturen erritmora iritsi zela adierazteko. Hala ere, ideia horrek transformazio estetikoa koiuntura soziopolitikotik at uzten du: isilarazi egin da kulturaren berpizte horrek, esperimentazio formalean oinarritua egonik ere, harreman zuzena duela hegemonia espainol eta frantsesak zalantzan jartzearekin (Ansa 2019: 13), eta ondorioz, bide propioa jorratzearekin. Zaharbertzearen bidez, beraz, euskal literaturak gutxiagotasun konplexuei hautsa kendu nahi izan ziela esan daiteke, bere buruari erakutsi nahi ziola inguruko literatura nagusiak bezain modernoak izan zitekeela. Hau da, euskal literatura sumatzen hasi zen anbizio literario handiagoa izatera hel zitekeela, kostunbrismo moralista eta folklorikoak ez zuela zertan bere zerumuga izan.

Testuinguru horretan, norabide berri bat hartzen du euskal literaturaren eta urbanotasunaren arteko harremanak, eta bete-betean jotzen du nazio eraikuntzaren eta literatura txikiaren harremanarekin. Sorreratik, munduko literatura desorekan eta botere harremanetan oinarritu da, eta ondorioz, nazioartean markatu diren literatura modernoaren tempo eta parametroak arbitrarioak bezain baztertzailak izan dira, baita botere-harremanok iraurarazi dituzten hiriaren irudikapenak ere. Nazioarteko literatur esparrua XVI. mendean osatu zen, Europako estatu zentralistak sortzearekin batera, eta hortaz, estatu horiek (bereziki Italia, bere ondare latinoarengatik, baina baita Frantzia, Espainia eta Ingalaterra ere) eta euren literatur tradizioak izan ziren nazioarteko aintzatespenaren lehen erreferentziak eta oinarriak jarri zituztenak (Casanova 2001: 23). Gerora ere, estatu-nazio hegemonikoek markatu dituzte munduko literaturaren parametroak.

Casanovak (2001) "Letren errepublika" deritzon nazioarteko literatur sistemaren funtzionamendua erdigunearen eta periferien arteko harreman eta tentsioetan ardazten du. Errepublika literarioaren logika, beraz, hiriburu

baten eta haren menpe dauden eskualdeen arteko oposizioan oinarritzen bada, eta hark nazioarteko hiriburuen arteko lehia bultzatzen badu, eskualdeek hiriburuarekiko duten distantzia politiko eta estetikoaren arabera definitu beharko dute beren burua. Nazioarteko sistema hori, beraz, nazioen arteko eta literaturen arteko gatazka kulturalak norabideratzen dute, “denbora literarioaren” erritmoak kontrolatzeko lehiak. Hala, bada, banaketa argia ezartzen du: literatura “garatuak” egonen dira, literaturaren arauak erabaki eta ezartzen dituztenak; eta “atzeratuak”, gainerakoek erritmorik iristen saiatzen direnak. Literatura garatuek, noski, Mendebaldeko estatu-nazio nagusiekin egiten dute bat, eta garatu gabetzat hartuko dira kolonizatutako herrialdeak, Ekialdeko literatur tradizioa edota literatura txikiak. Sarrionandiak (2010: 447) ezin hobeto azaltzen du:

Munduko Literatura zabaltzen zen artean, Afrika, Amerika, Australia eta Asiako hainbat literatura jatorrizko suntsitu edo baztertu egingo ziren. Munduko Literatura kontzeptua Europako balio kristau eta burges berrien zabalkundearekin sortua zen, eta zabalkunde horren estandarteetako zen. Inperialismoak orientalismoa ekarri zuen, exotismoaren inportazioa –berba ekonomikoa erabiltzeko–, herri konkistatuaren errekupeazio arkeologiko eta ornamentala.

Frantziako ereduari jarraiki, eskema guztiz zentralista bat aurkezten du Munduko Literaturak: hizkuntza nazionalean idatzitako literatura nazionala duen Estatu-nazioaren eredia, hain zuzen ere. Estatu-nazio horrek bere kapital sinboliko eta literarioaren zati handi bat hiriburuan kontzentratzen du, eta eskualde periferikoak guztiz menpeko geratzen dira, hiri handi horren eta Estatu-nazioan hartutako erabakien menpe egonen baitira. Miragarria litzake, beraz, hiriburutik aparte dauden eskualdeek bat-batean beren burua aldarrikatu eta euren literatura aintzatesteko eskatzea, marjinalitatea baita eskualde-literaturei ezarritako ezaugarria (Casanova 2001: 24). Ideia horretatik abiatuta, nazioarteko joko-zelaian agerpena egiteko, bi aukera edo estrategia aitortu ohi zaizkie bazterreko literaturei: asimilazioa edo desberdintzea. Asimilazioa nazio txikiaren literatur sistema nagusitasuna duen Estatuaren irizpideen arabera eraikitzean datza. Kasu horretan, idazleek alde batera utzi beharko lituzkete haien kultura propioak eskaintzen dizkien ezaugarri eta bereizgarriak (hizkuntza, historia, identitatea, etab.) edo kultura nagusiaren

menera jarri eta adierazi. Bestetik, desberdintzeak literatura bereizgarri horietan zeharo oinarritzea du helburu, erregionalismora makurtuta, komunitate txiki baten folklorea goratu eta bereizgarritzat jotzen dena exotikotzea.

Tarteko bide alternatiboak ukatuta, literatura txikiak edo bazterrekoak zigortuak izan dira sarri Munduko Literaturan, eta ez zaie aitortu merezi zuten lekua, argudiatuz literatura horietan ez dela autonomiaren ideia existitzen, eta ondorioz, idazleak euren komunitate marjinalaren desberdintasuna azpimarratzera lotuta egoten direla, “kondenatuta” daudelako ia beti gai nazional edo herrikoiei buruz idaztera eta nazioaren ideiak defendatu, garatu edo kritikatu behar izatera (Casanova 2001: 251-252). Baina literatura nazionalak estatu-nazioen jaiotzan sortuak izaki, ez al dute nazio guztiek, handiek zein txikiak, eta ondorioz, euren literaturek, nazionalismoari buruzko eztabaida barnebiltzen haien baitan? Sinpleegia litzake adieraztea soilik literatura txikiak daudela haien identitatearen zamapean zigorturik.

Ezin da errefusatu, noski, nazio ukatua izatearen gatazkak euskal literaturan izandako eragina. 60ko hamarkadan, euskaraz sortzeko borroka gain, euskal letrek politizazio handi bat bizi izan zuten. Hala ere, nazioaren aldeko produkzio propagandistikoa bihurtzetik urrun, literatura –oro har, kultura bezala– irekidura dispositibo bihurtu zen (Ansa 2019: 158). Kulturaren inguruan sortutako mugimenduak euskal identitatean sakontzeko aukera eman zuen, eta euskal nazionalismo tradizionalaren sistema patriarkal eta katolikoarekiko ahots kritikoak agertzen hasi ziren hamarkada amaieran: Artze (*Isturitzetik Tolosan barru*), Amaia Lasa (*Poema bilduma*) eta Saizarbitoria bera (*Egunero hasten delako*), kasurako. Haustura horretan, argi ikus daiteke tradizioetik edo folkloretik hurbilen geratzen ziren leku komunitatik –bereziki, euskaldun onaren landa mundutik– aldentzeko borondatea, beste espazio batzuk arakatuko dituen bide alternatiboak sortzeko (Ansa 2019: 117). Barrura begirako bilaketa horrek, ordea, Europatik eta, bereziki, Frantziatik zetozen proposamen estetiko eta diskurtsiboak izan zituzten akuilu. Nahiz eta 68ko maiatzaren ostean Parisen zentraltasuna agortzen joan, gertaera horien bueltan garatutako pentsamendu eta kultura korranteak dira Saizarbitoriaren belaunaldiarengan influentzia handiena eragin zutenak, idazle zein musikari gazte askoren inspirazio-iturri eta sormenerako espazio izan baitzen Paris, baita erregimen frankistatik ihes egindakoentzako etxe ere (Gabilondo 2013: 101).

Eleberrigintzan hirira egiten ari zen espazio aldaketak, beraz, harreman zuzena dauka euskal identitatearen bilaketa berri horrekin. Bide propioa urratzeko arrakala bat sortzen da 60ko eta 70eko hamarkadetan, euskal literaturari aurretik ezarria duen eremutik irteteko aukera emango diona, tarte baterako bada ere. Horrek bertako errealitatearen konplexutasuna onartzea (prototipo euskaldunari ihesi), adierazteko bide berriak esploratzea (Europatik zetozen estilo orduan apurtzaileak) eta espazio berriak bilatzea (hiria ere bere egitea) ekarri zuen, garaiko eleberrigintzaren oinarritzat jo ditzakegun ezaugarriak izanik aurreko horiek. Hiriak eleberrietan lehen aldiz irudikatzean, ordea, gatazkak sortzen dira: nola aurkeztu euskal irakurleari, erdeinurik sortu gabe, lehenago errefusatu den espazio bat? Izan ere, Mendebaldeko tradizioan hiriek baliabide literarioak metatu eta pilatu ohi dituzten heinean, zilegitasun eta iritzi literario gehien produzitzen dituzten espazioak izan dira, eta dira (Casanova 2001: 40), baina kontuan harturik Euskal Herriak ez zuela kapital kultural eta literarioa metatzen zuen hiriburu nazionalik eta euskal literatura hiriko esparruan marjinala izana zela beti, eredu faltarekin eta zailtasun ugariarekin egiten zuten topo irudikapenak egikartzeko orduan. Arrakala horren baitan, ordea, eleberrigintza bere testuingurura moldatu zen, nahiz eta horrek Mendebaldeko eredu hegemonikotik kanpo utzi zuen hein handi batean, eta bazterrean jarraiarazi. Hala ere, hiri ertainen konplexutasuna erakutsi zuen bere lehen irudikapen urbanoetan, landa eremuko testuinguruarekin harremanean betiere. Hor kokatzen dira Saizarbitoriaren lehen eleberriak, izan *Egunero hasten delakok* atzerrian kokatutako hiri ertainak baliatzean eskaintzen duen trantsizioaren bidez, izan *Ehun metron* Donostia nobelatzean nazio-gatazkaz gain hiriaren konplexutasun soziala (egoera diglosikoa, turismoaren eragina, etab.) adieraztean. Ez da metropoli handirik ageri, ez da hiriburu literariorik osatzeko anbizioarik agertzen, baina urbanotasuna perspektiba propioago batetik iristen da euskal literaturara.

Spivakek (2009) dio subalternoak ez duela hizketarako aukerarik, enuntziazio lekua hartzen duen neurrian uzten baitio subalterno izateari. Behin hitza hartzeko onespina jasota ere, ordea, erdigunea urrun geratu ohi da. Euskal literaturak linbo horretan eraiki behar izan du bere izatea, zenbaitetan bazterreko espazio horretan bide propioa eginez, zenbaitetan existitzeko

baimen eske eta nazioartera ateratzeko baldintzen pean. Ikusi denez, Mendebaldeko tradizioaren, eta ondorioz, Munduko Literaturaren irizpideen arabera, euskal literatura bazterrekoa eta gutxiagotua izango da beti, are gehiago Espainiako eta Frantziako literatur sistemen begietan. Izan ere, euskalduna inoiz kultura eta literatura normala izango delako usteak aurrez eskatzen du, baldintza gisa, euskal nazio-estatu inperialista kapitalista baten existentzia (Atutxa 2012: 155). Normalizazioaren ideia falazia da beraz, potentzia handien “normalitatearekin” bat egiten ez duen sistema literario batean. Horren ildora, hirien irudikapenek gurean sortutako “gabezia” eta “atzerapena” konparazio horren beste adibide bat baino ez dira. Euskal literatura ezin bada normala izan, urbanotasunaren esperientziak eta hiriaren irudikapenek ere ez dute Mendebaldeko ereduarekin bat egingo.

60ko eta 70eko hamarkadetan, zenbait saiakera antzeman daitezke anormaltasun horri heldu eta bere horretan adierazteko, baita hiriak eleberrietan txertatzerako orduan ere. Horien artean kokatzen dira Saizarbitoriaren lehen lanak, eta horregatik dira interesgarri urbanotasuna euskal eleberrigintzara nola ekarri zuen ulertzeko. Ez folklorizazioan, ez homogeneizazioan ez erortzeko Saizarbitoriak –beste zenbaitekin batera– egindako hautuak lotura zuzena dauka Madrilekiko markatu nahi zen urruntasunarekin, Frantziatik iristen ziren berritasunak euskaraz gorpuztearekin eta literatura autonomo baina era berean herriarekin engaiatu bat sortzen saiatzearekin. Hautu horrek Saizarbitoriari Euskal Herria adierazteko distantzia bat eman ziola esan daiteke, eta hortaz, Casanovarentzat pentsaezina den kategoria bat gorpuzten duela, bere Letren Errepublika zurrunk literatura txikiei ezarritako bi aukera gutxiesleei uko egiten baitie (Gabilondo 2013: 40). Azken finean, Europako modernitatearen korranteetatik edan zezakeenari adi, baina bertako anormaltasun berez normalari buruz idaztea hautatzen duelako Saizarbitoriak lehen eleberrietan, hirien irudikapenetan islatuko den eran.

### 3. Ramon Saizarbitoria: hiriaren irudikapen alternatiboa

Saizarbitoriaren bidez, euskal eleberrigintzan aurretik gertatu gabeko espazio-aldaketa jazotzen dela esan daiteke. Bere literatur ibilbidearen



lehen etapan, euskal literaturarentzat molde berriak bilatzeko berariazko nahia antzeman daiteke, bai gaitegian, bai forman. Ez da bide hori hartu zuen erreferente bakarra, aurretik Txillardegik ere bidea ireki baitzuen mundu zaharraren eta berriaren arteko haustura eragiteko (Aldekoa 2007: 629). Bereizten hasiak ziren fede katolikoan oinarritutako mundu ikuskera zuen belaunaldia eta filosofian eta iraultzan mundu berri bat aurkitu uste zuen belaunaldi gaztea, eta arrakala horren ikurtzat har daiteke *Leturiaren egunkari ezkutua*, landa eremuaren eta hiriarren arteko espaziotzat har dezakegun Zerubide parkean kokatua. Txillardegiren lanean hiria ageri bada ere, ezin esan daiteke espazioak protagonismo bereizgarririk duenik oraindik, ez da ageriko egiten, eleberri existentzialistan protagonistaren mundu intimoak eta hausnarketa pertsonal zein filosofikoek gidatzen baitute istorioa, zinez. Horrez gain, urtaroen joanak egituratzen du nobela, parkea hiriari baino naturari atxikiz. Saizarbitoriak, ordea, hiria eleberrian integratzen du, agertokiaz haragoko interes narratiboa dauka, eta besteak beste, protagonistaren izaera eraikiz (*Egunero hasten delakon* protagonistaren haurdunaldia irudikatzerakoan, adibidez) edota espazioen esanahi sinbolikoen bidez (esaterako, *Ehun metron* Konstituzio plazak duen esangura ukazina) bilakatzen du hiria ezinbesteko bere literaturan. Hala, euskal eleberrigintzan Txillardegik eragindako hausturari jarraiki, baina espazioari dagokionez beste urrats bat emanez, Saizarbitoriak espazio urbanoa erabiltzen du hasiera-hasieratik literaturaren bidez garaiko errealitatearen konplexutasuna adierazteko.

Idazle donostiarraren lehen bi eleberriak, 60-70eko hamarkadetan argitaratuak, euskal eleberrigintzan begirada urbanoa txertatzeko saiakeratzat har daitezke, beraz. Bi eleberrietan erabiltzen dituen espazioek, gehien-gehienak hiritarrak, lotura estua dute pertsonaien garapenarekin zein garai soziopolitikoaren irudikapenarekin. Ondorioz, eleberrien funtsezko elementua izango da espazioa, sarri pertsonaiak ezaugarritu edota istorioa diskurtsiboki bideratuko baitu. Orain azalduko den gisan, Euskal Herriko zenbait errealitate islatuko dituzten espazioak dira, non Donostiak erdigunea hartuko duen, mundu modernoaren arazo eta gatazkak azaleratzeko orduan.

*Egunero hasten delako*<sup>1</sup>

60ko hamarkadaren amaieran, gai zein forma berritzaileez gain, eleberri honek espazio urbanoaren agerpen apurtzailea ekarri zuen. Hamarkada amaierako Europa erdialdean giroturik –idazlearen erreferente eta influentziak argi geratzen dira hasieratik–, inguru guztiz hiritarrean narratzen dira Gisèleren nondik norakoak: tren geltokiak, kafetegiak, unibertsitateko ingurugiroak, mediku espezialisten kontsultak, etab. Hiri bat baino gehiago aipatzen dira (Paris, Erroma, Lyon), baina garrantzitsuenak, zalantzarik gabe, Durkheim eta Riemmes dira. Asmatutako hiriak, biak hala biak, baina Friburgo eta Ginebrarekin erraz erlazioa daitezkeenak. Izan ere, Gisèlek hartutako trenak Durkheim-Bastian-Riemmes ibilbidea egiten du, baina Friburgo-Lausana-Ginebra geltokiak izan zitezkeen. Horrez gain, Durkheimgo kaleak Friburgoko izen berak dituzte (Hernandez Abaitua 2008: 164).

Saizarbitoriak ongi ezagutzen dituen hiri ertainak dira, probintzia edo kantoi-hiriburuak, Suitzako paisaiaren parte diren aintzirez eta mendi altuez inguratuak, naturarekin harreman estua dutenak. Hau da, lehen euskal eleberri urbanoa ez dago Euskal Herrian girotua, eta Europa erdialdeko hirien traza dute haren espazioek. Euskal Herriatik kanpoko agertokia aukeratzea hiriarekiko zegoen mesfidantza gainditzeko bide izan zitekeen, baita errealismoak sor zitzakeen eragozpenak arintzeko ere, oraindik ere zail baitzen gatzelania edo frantsesa gailentzen zen hiri bat euskaraz irudikatzen. Bertakoari buruz aritzeak ekar lezakeen errefusa edo gutxiespena –atzerapenaren ideia bidez literaturak bere burua desgaitzen baitu– oraingoz saihestu eta arrotza zen hori gutxinaka gerturatzeko modu bat. Hala ere, naturarekin kontaktuan dauden hiriak dira, ertainak eta probintzia hiriburuak, ez direnak Londres edo Paris bezalako metropoli-hiriburuak, baina hala ere, tesuinguru guztiz urbanoa dutenak. Espazio horien aukeraketa kultura urbanoa euskal literaturara hurbiltzeko lehen saiakera gisa uler daiteke: hiri ez-gatazkatsuak, era atsegin eta hurbilean aurkeztuak. Izan ere, Suitzako hiri ertainak izan arren, Euskal Herrikoen tipologiara gerturatzen dira, eta beraz, ez dira atzemanezinak edo arrotzak irakurle euskaldunarentzat. Gai-

<sup>1</sup> EHD, hemendik aurrera.

nera, ezin ahantz daiteke, 60ko eta 70eko hamarkadetan gazte askok atzerri jo zutela, sarri Europako hirietara ikastera edo lanera, Saizarbitoriak Friburgora egin bezala. Ez da kasualitatea, beraz, idazlearen lehen eleberri honek garaiko gazte askorentzako ezaguna zen agertokia izatea oinarrian.

Suitzako hirien hautaketak, esanahi zehatz batetik harago, funtzio jakin bat betetzen du *EHDn*: diskurtso bat osatzen du istorioaren barnean, eta liburuaren tesia indartu. Agerikoa da idazlea bizitoki zuen ingurunean inspiratu zela, baina errealitate hori islatzeko interesa baino, espazio horrek ematen dizkion aukeretan suma daiteke Durkheim eta Riemmes eraikitze-ko hautua. Izan ere, kantoiek garrantzi berezia dute eleberri honetan, geografaren mugek eta lurralde-banaketek eragiten dituzten politika-aldaketak agerian geratzen baitira. Durkheim eta Riemmesek ordezkutzen dituzten bi kantoiak epai moralen erlatibotasunaren sinbolo dira (Hernandez Abaitua 2008: 164). Morala, eta bereziki oinordetzan jasotako moral katolikoa, da eleberri honen muinean protagonistek daukaten gatazka behinena, kasu honetan sexua eta ugalketa bereizteko nahian zentratzen dena (Aldekoa 2015: 128). Aurretik aipaturiko belaunaldi talka berresten da, zaharren munduaren eta gazteen munduaren artean, moral zaharraren eta moral berri baten bilaketaren artean. 60ko hamarkadaren amaierako gazte giroa dakar Saizarbitoriak bere lehen eleberrira, moral zaharraren dogmak zalantzan jartzeko eta gainditzeko beharra, baita horrek zekartzan buruhaustek ere. Aurrekoarekin hautsi eta moral berriaren bilaketarako espazioa da hiria, baina gatazkaren espazioa ere bada, gazteen askatasun eremuari kontrajarrita belaunaldi zaharraren eskuetan baitaude oraindik hirian kokatzen diren botere sinbolikoen guneak: Estatua, Eliza eta, eleberri honetan, osasungintza eta ginekologia; boterea, azken finean. Kasu honetan, abortuaren bidez azaleratzen da gatazka hori. Izan ere, Estatu beraren barnean, abortuaren legeak desberdinak dira *EHDn*, edota ez dira modu berean aplikatzen, eta ondorioz Durkheim hirian ezinezkoa da abortua praktikatzea, baina Riemmesen, ordea, Gisèlek prozesua aurrera eramateko aukera topatzen du.

Saizarbitoriak Suitzako testuingurua hautatzeko beste arrazoietakoa bat izan daiteke hori, abortuaren gaia jorratzekotan, Euskal Herrian guztiz debekatua baitzegoen garai horretan. Horiek horrela, abortatzeko baldintzak

ulertzeko begirada desberdinek lurraldetasuna markatzen dute. Bien bitartean, neska gazteak bi hiriak goitik behera ibiltzen ditu bere etorkizunarekin zer egin erabaki nahian. Testuinguru desberdin horiek legeen arbitrariotasuna agerian uzteaz gain, espazio urbanoak eleberraren argumentuaren zerbitzura jartzen ditu. Ondorioz, *EHD* eleberriko gatazka nagusia moralaren interpretazio partzial eta aldakorrek sortuko du eta ez, inolaz ere, hiriaren presentziak. Lehen aldiz, hiriaren irudikapena ez da korapilo, aurreko garaietan izan zitekeen bezala. Hiria ez da espazio gatazkatsua nobelan, kontrara, inguru natural, moderno gisa aurkezten da, baita nolabaiteko askatasuna sentitzeko beharrezko baldintzak aurki daitezkeen leku baten modura ere: erabakiak hartzeko, topaketarako, moral tradizionala zalantzan jarri edo kritikatzeko lekua da hiria *EHD*n. Hala ere, esan bezala, espazio moderno eta askatzaile baina, era berean, konplexu hori irudikatzen, Saizarbitoriak ez du metropoli handirik aukeratzen, baizik eta hiri probintzialak. Beren balioa eman nahi die, beraz, hiri ertainen urbanotasun eta modernotasunari.

Eleaniztasuna da *EHD*n aurki ditzakegun espazio urbanoen ageriko beste ezaugarri bat. Eleberrian zehar, txandaka agertzen dira Suitzako hizkuntza ofizialetako bi, frantsesa eta alemana, eta horrez gain ingelesa. Halaber, amaierako pasarteetako batean italierazko elkarrizketa bat irakur daiteke, herrialdeko beste hizkuntza ofiziala dena. Frantsesak eta alemanak, hots, irudikatzen diren bi kantoiei dagozkien hizkuntzek, herrialdeko eleaniztasuna ikusarazten dute, eta ingelesak nazioartekotasuna. Interesgarria da, beraz, ikustea zein momentu zehatzetan erabakitzen duen idazleak hizkuntza horiek eleberrian txertatzea. Hizkuntza aniztasuna erakusteko arrazoi garbientetako bat urbanitatearen adierazpenean aurki dezakegu. Saizarbitoriarentzat, hiria modernitatearekin lotzeko, ezinbestekoa da hiriek biltzen duten aniztasuna azaleratzea, munduko beste hiriekin konektaturiko hiriak diren heinean. Hala bada, *EHD*koak hiriburu ertainak izanik ere, hiri kosmopoliten isla dira, nazioarteko sare urbano batekin harremanetan daudena, eta ondorioz, hizkuntzen bitartez elkartuak. Alde horretatik, sinbolikoa gerta daiteke, trenei buruzko informazioa, iragarkiak eta egunkarietako titularrak frantsesez, ingelesez zein alemanez ematea.

Bestetik, hizkuntza desberdinen erabilerak nazioen errealitate eleaniztuna jartzen du agerian, kasu honetan, Suitzako errealitatearekin bat egi-

ten duena. Ezin esan daiteke eleberrian ispilatutako praktika hau inuzentea denik, gainera, Saizarbitoriaren bibliografian errepikatzen den teknika izanik. Hortaz, saihetsezina da Euskal Herriko egoera linguistikoari keinu bat igartzea eleberri eleaniztun honetan. Gure lurraldeko egoera diglosiakoaren aurrean, bereziki hirietan, eleberriko irudikapen urbanoak nazio eleaniztun baten eredu positibo gisa funtzionatzen du. Era horretan, egoera linguistikoari dagokionez, Saizarbitoriak harreman bat sortzen du irudikatutako espazio urbanoaren eta irakurle euskaldunaren errealtatearen artean. Hala, oso ongi neurtutako gertutasun bat proposatzen du: irakurleak bere espazio ezagun bat igar dezake proposatutako hirietan, espazio gatazkatsua ez dena gainera, baina betiere distantzia batetik, guztiz bere sentitu gabe.

Orobat, aurretik aipatu gisa, hiriaren irudikapenak pertsonaien karakterizazioarekin guztiz lotuta daude, gehien bat mikroespazioei dagokienez. Alde batetik Gisèlek gorpuzten duen neska gaztearen pertsonaia dago, protagonista guztiz dinamikoa. Haren dinamismoa espazioan ispilatzen da: etengabe aldatzen da bere ekintzaren agertokia, eta hiriak zeharkatzen ditu abortatzeko nahiriari soluzio bat eman nahian. Era berean, Gisèlek moralitate tradizionalaren kritikan neska gazte modernoaren papera hartzen du, ideiak argi ditu eta erabakiak amaieraraino eraman nahi ditu. Garbi ikus daiteke hori bere ingurukoekin dituen elkarrizketetan, esaterako, Bertherekin birjinitateari buruz hitz egitean edota Mauriceri argitzean berarekin oheratu izanak ez diola eskubiderik ematen bere etorkizunaz erabakitzeke (Hernandez Abaitua 2008: 152-153). Xehetasun txiki baina iradokitzaileen bidez eraikitzen du pertsonaia Saizarbitoriak, eta besteengatik nabarmentzen da ideia ireki eta ekintza irmoengatik. Eleberrian zehar, idazleak espazioa erabiltzen du adierazteko protagonistaren izaera errebeldea, korrontearen kontra doana, eta era berean, sentitu nahi lukeen lasaitasuna, barne-bakea. Eta alderantziz ere, neskaren mugimenduen bidez marrazten du espazio urbanoa (Saizarbitoria 2007: 121):

Jende uholdea lanetik etxera, euriari ihesi, aterkia eskuan isilik doazen gizon-emakumeak, artaldea bailiran. Gisèle ez da korronte horretan murgiltzera ausartzen eta, luzaroan zalantzan egon ondoren, kalean behera eramaten uzten dio bere buruari, etxe artean, eta

aurrera egin ahala, desio lukeen lasaitasuna iradokitzen duen argitasunez piztuz doaz leihoak.

Semaforo gorria. Uholdea gelditu egin da baina berak aurrera jarraitzen du. Klaxon hotsa, balaztaden kurrinka. Korrika hasten da. Oihu egiten diote.

Horrez gain, hiriak eleberraren korapilo nagusia azpimarratu eta garatzeko balio du. Idazleak lortzen du agertoki urbanoak protagonistaren barne gatazka irudikatu eta islatzea. Horretarako, Saizarbitoriak hiriaren eta naturaren arteko aurkakotasun txiki bat sortzen du, baina antagonismo bat bilatzea baino, elementu bakoitzaren konplexutasuna atzematea duena helburu. Hiriaren eta naturaren artean, batak bestea baztertu beharrean, elkarbizitza posible bat proposatzen du. Esanguratsua da, besteak beste, Gisèlek desio ez duen haurdunaldia hiriko harrien artean jaiotzen den zuhaitzarekin alderatzen duen pasarte. Interesgarria da ikustea nola protagonistak, bere izaera identitate guztiz urbano eta modernoan oinarritu arren, naturarekiko maitasun eta sentsibilitate berezia erakusten duen. Natura bizia preziatzen du, baina era berean, naturak bere barnean sortu duena gorroto du. Hala bada, Saizarbitoriak gatazka gurutzatu horiek hiriaren bidez plano berean irudikatzea lortzen du, berriz ere hiriak eleberraren diskurtsoan eta garapean bere lekua izanik (Saizarbitoria 2007: 122):

Aurrez aurre, enbor meheko arbola gazte bat, brontzezko historialariaren garaierakoa. Atsegina zaio plaza, hiri erdian galdua dirudiena, ahantzia bezala, trafikoaren zaratatik gordea, non hoditeriaren ur hotsa eta jolasean diharduten bi haurren pilotarena baino ez den entzuten. Arbola, harrien artean, haurren pilota baino askoz handiagoa ez den lur zirkulutik jaio da. Natura tematia. Bere barnean erroto den eta bere desioaren kontra bizi nahi duen natura hori. Arbola besarkatzen du eta bere azal leuna ferekatzen. Sarritan izan ohi du sentipen hori, arbolak taupa egiten dien bihotza dutelakoa. Sabelean daraman hori, ordea, ez du bizia bezala sentitzen, zigorra bezala baizik.

Pertsonaien karakterizazioa itzulita, argi ikus daiteke bigarren protagonista ere, gizon berritsua, espazio urbanoaren bidez eraikitzen dela. Gisèlaren kontrara, irakaslea pertsonaia guztiz estatikoa da. Irakurleak bakarrizke-

ten bitartez ezagutu dezake soilik haren identitatea, narratzaileak ez baitu esku hartzen berak okupatutako pasarteetan. Gizon berritsuaren mugimenduak, beraz, diskurtsiboak dira. Argi ikus daiteke darabiltzan erreferentzia kulturalak 60ko hamarkada amaieran adin ertaineko pertsona ikasi batenak direla, garaian Europako giro intelektualean borborrean zeuden eztabaida eta korronteak txertatzen baititu bere jarioan: existentzialismoa, marxismoa, surrealismoa... (Aldekoa 2015: 127-128). Horrez gain, pertsonaia hau ez da espazioan mugitzen, eserita dago beti, eta bere bakarrizketek bi toki hartzen dituzte soilik: tren-geltokiko kafetegia eta lokutorioa. Bi espazio hauek, ordea, estatikoak izatetik urrun, munduarekin komunikatzeko lekuak dira, konexio eta topaketarako puntuak. Mundu modernoari buruzko diskurtso eta hausnarketek gizon berritsuaren hizketaldiak betetzen dituzten eran, berak hartzen dituen espazio urbanoak ere mundu globalarekin konektaturik daude trenbideen eta telefono lineen bidez. Ondorioz, desplazamendu fisikorik gabeko pertsonaia izan arren, dinamismo diskurtsibo handiak hartzen du garrantzia kasu honetan. Izan ere, arazo moderno globalak puntu kardinaltzat hartuta, posizio aldaketa etengabeak eragiten ditu gizonaren jarioak, eta irakurlea berarekin eramaten du joan-etorri etengabe horretan.

Hitz batez, Saizarbitoriak istorio guztiz modernoa plazaratu zuen bai tematikaren, bai formaren aldetik bere lehen eleberrian, eta ezaugarri horiek trama garatzen den espazioan agerian geratzen dira halaber. Hori dela eta, espazio urbanoa hautatu izana ezinbesteko gertatzen da tramaren eraikuntzarako, baita pertsonaien karakterizaziorako ere. *EHDk* hiriaren irudikapena behar du moral tradizionala zalantzan jartzeko zein abortuaren gatazka klinikoa azalertzeko, baina baita kultura urbano eta modernoaren ezaugarriak dituzten pertsonaiak kokatzeko ere. Bidenabar, eleberriaren arazo nagusia espazio urbanoan islatzean, hiriak berak bere lekua hartzen du istorioan, eta zenbait pasartetan beste pertsonaia bat gorpuztera heltzen da. Ondorioz, esan daiteke lehen aldiz hiriak elementu diskurtsibo bilakatzen direla euskal eleberrigintzaren tradizioan. Nahiz eta *EHD* idazteko Euskal Herritik kanpoko hirien testuingurua erabili, ezin uka daiteke Saizarbitoriak euskal letretara hiria ekartzeko egindako lehen ahalegina, eta espazio urbanoa era atseginean eta landa eremuarekiko kontrakotasunik gabe gertura-

tzeko saiakera. Hala bada, atzerriko hiriek keinu egiten diete bertakoei, aldarrikatu nahian hiriaren potentzialtasun literarioa ageri-agerikoa dela, eta hiria/landa gatazka tradizioaletatik at, landa eremuarekiko oposiziorik gabe osa daitekeela diskurtso urbanoa.

### *Ehun metro*

*EHD*rekin euskal eleberrigintzaren urbanizazioa hasi bazen, *Ehun metrok* pausu handi bat suposatu zuen prozesu horren sendotzean, euskal letra modernoetan hiriaren garrantzia nabarmendu baitzuen. Saizarbitoriaren lehen eleberriari jarraiki, bigarren honek ere narratiban eta forman ekarri zuen berrikuntza ezaguna da. Lehen inpresioan hamaika zatiz osatutako *collagea* dirudienak, errealitatearen konplexutasuna dakarren trama zatikatua bistaratzen du berehala. Saizarbitoriak plano eta azpi-istorio ugari txertatzen ditu bi kontakizun nagusien inguruan, eta hala, ustez independenteak diren bi norabide gurutzatzen dira eleberrian; elkar baldintzatzen dute, betiere espazio berean ardaztuta baitaude: Donostian.

Idazlearen lehen liburuan bezala, bigarren honetako espazio urbanoek ere garrantzi handia dute gurutzatutako istorioak garatu eta eleberriari paisaia komun bat emateko. Eleberrian agertzen diren espazioak bi taldetan bana daitezke, denbora literarioan hartzen duten posizioaren arabera: pertsonaia nagusiaren berehalako errealitatean eta oroimenean (Hernandez Abaitua 2008: 246). Ondorioz, espazioaren eta denbora literarioaren arteko harremana ezinbesteko bilakatzen da *Ehun metro* ulertzeko. Orainaldiko lekuak espazio urbanoak dira beti, Donostian bertan kokatzen direnak: Konstituzio plaza, polizia etxea, Kontxako paseoa edota hiriari buruzko inpresio orokorrak agertzen dituzten pasarteak, irakurleak auzokideen elkarriketen eta egunkariko notizien bidez jasotzen dituenak. Iraganeko lekuak, ordea, askotarikoak dira, nahiz eta presentzia urriagoa izan. Gainera, denak ez dira Donostian kokatzen eta zenbait ez dira espazio urbanoak. Hortaz, Micheleren Donostiako etxeaz gain, herri txiki baten zein Frantzia eta Suitzako inguruen zenbait zertzelada agertzen dira. Baina zalantzarik gabe, Gipuzkoako hiriburua da *Ehun metroko* espaziorik esanguratsuena.



Oraingo honetan, eleberria osatzen duten espazioak errealak dira, eta ekintzek Euskal Herrian hartzen dute leku, Donostian, irakurle euskaldunari irudikapen urbano ezaguna eskainiz. Donostiak ezinbesteko papera jokatzeko du eleberriaren eraikuntzan, espazioen egiazkotasunak sinesgarritasuna ematen baitie testuinguru zehatz horretan gertatzen diren ekintzei, eta bereziki, irakurlea hiri literarioa gerturatzen baitu sentimendu arrotzik sortu gabe. Ez dago asmatutako edo urruneko espazioen beharrik urbanotasuna euskal letretara ekartzeko, eta hala, Konstituzio plazak, San Martin edo San Jeronimo kaleek zein Udaletxeak euskal hirien potentzial literarioa sustatzen dute Saizarbitoriaren bigarren eleberrian. Hala ere, errealismoak ez du salbuesten espazio horiek, era berean, balio eta funtzio sinbolikoak izatea.

*Ehun metroko* espazioak, orainean eta iraganen kokatutako lekuak izateaz gain, “jazotako espazioak” eta “gogoratutako espazioak” etiketen pean ere bana daitezke (Hernandez Abaitua 2008: 249-250). Jazotako espazioetan orainaldiko ekintzak kokatzen dira, Donostian kokatuak, eta horietan gatazka armatuaren biolentzia, agresibitatea eta krudelkeria gailentzen da, baita biztanleriak errealitate gogor horren aurrean erakusten duen indiferentzia ere. Kontrara, gogoratutako espazioak afektiboagoak dira, eta zenbaitetan Donostiatik kanpoko oroitzapenak ekartzen dituzte. Leku horiek protagonistaren memoriara datoz analepsiaren bidez, elementu zehatz batzuek iraganera bidaia eginarazten baitiote, baita iraganetik orainaldira ere. Ondorioz, espazio horiek iheslariak korrika egin bitartean sentitzen dituen sentimenduekin daude lotuta, eta oroimena erabiltzen du espazio desberdinak konektatzeko. Sarri ez dira fisikoki guztiz hautemangarriak, baina pisu emozional handia dute lanean.

Bestalde, *Ehun metron* ere, hizkuntzaren hautaketak garrantzi handia du, eta hiriaren irudikapenarekin lotura zuzena ezartzen du. Eleberrian zehar agertzen diren gaztelaniazko, ingelesezko edo frantsesezko pasarteak oso era kontzientean hautatu dira eta karga sinboliko handia dute, errealitatea ikuspegi hurbil eta sineskor batetik adieraztea baitute helburu. Eleberrian presentzia txikiena duten hizkuntzak dira frantsesa eta ingelesa, eta abesti bera osatzen duten bi hizkuntzetako bertsoetan egiten dute agerpena: “Song in the blood” eta “Chanson dans le sang”. Josek, iheslariak, oroitzar-

pen baten bidez ekartzen du abestia istoriora, Michelerekin entzuten baitzuen nazioarteko abesti ezagun hori. Abestiaren bidez, Saizarbitoriak garai-ko pop kultura dakar, eta modernitateari eta unibertsaltasunari keinu egiten dio gatazkan dagoen lurraldean. Abestiaren erabilera ez da inolaz ere kasual- la, liburuaren tesi nagusia indartzen baitu: zein da borroka baten alde sakrifikatzearen eta odola isurtzearen zentzua, gizartea gidatzen duten logika eta arauak ez badira aldatzen, eta munduak axolagabe jarraitzen badu biraka (*Where's it going all this spilled blood / murder's blood... war's blood... / misery's blood [...] It doesn't give a damn / The earth / it turns and all living things set up a howl*). Horrela bada, eleberraren amaieran, ideia nagusia are gehiago nabarmentzen da, iheslaria zerraldo datzanean behin eta berriz entzuten baita abesti bera (Saizarbitoria 1980: 99): *It turns the earth / It turns with its trees... its gardens... its houses / It turns with its great pools of blood*.

Hizkuntzen erabileraren eta espazioren artean dagoen harremanari dago- kionez, ordea, gaztelania da esangura berezia duena. Gaztelaniaren erabile- rak euskal gizartearen egoera diglosikoa erakusten du, hirietan are nabar- menagoa zena eta dena (Hernandez Abaitua 2008: 251), baina horrez gain, errealitatearen kontraste krudelak agerian jartzeko errefortzu agerikoa da. Halaber, hizkuntza bakoitzak lotura estua du sentimendu batzuekin, eta gaztelaniaren kasuan, boterea, biolentzia eta indiferentzia adierazteko ba- liatzen du. Zenbait pertsonaia edo elementu jakinek darabilte gaztelania: poliziak –galdeketa eta tiroketan–, eskola frankistako apaizek –boterea markatzeko erabiltzen dute–, hiritarren iruzkinak –txutxu-mutxuak eta in- diferentzia jakitera ematean–, eta egunkari sentsazionalistetako notizia eta turismo iragarkiek. Gaztelania, beraz, hiriaren irudikapenarekin erlazio zu- zena duen hizkuntza da, haren bidez deskribatzen baita hiria egunkarietan, eta kanpora begira bere burua saltzeko hizkuntza baita. Mundura atera eta atzerritarrei hiri modernoa eta burgesa dela ikusarazteko hizkuntza da. Era berean, gatazka armatuak eragindako gertaera lazgarrien aurrean zenbait herritarrek sentitzen duten indiferentzia adierazten da gaztelaniaren bidez, eta hala, Saizarbitoriak donostiarrek euren hiriaz duten irudi burges eta harroa azpimarratzen du sarri.

Ondorioz, gaztelaniaren erabilera ugaria, alde batetik, jazarpen eta bio- lentziatzko giroaren adierazle da, boterea erakusten duten pertsonaiek –ira-

kasleak, poliziak–, zein errelato ofiziala osatzen dutenek –egunkariak, irratia– erabiltzen baitute. Baina bestetik, mundura ateratzeko hizkuntza da, propaganda turistikoak, turista espainiarrek eta Donostiako zenbait herritarrek baitarabilte hizkuntza hau. Euskara ez da luzaroan hiriko hizkuntzat hartu izan, eta, ondorioz, Hego Euskal Herrian gaztelania izan da urbanotasunaren, garapenaren eta goi-mailako hiritarren legitimaziorako hizkuntza. Eleberrian dituen agerpenak behatuta, beraz, pentsa liteke Saizarbitoriak, uste horri jarraiki, kosmopolitismoa eta modernitatea adierazteko baliatzen dituela. Alabaina ukaezina da idazleak gaztelaniazko pasarte horietan darabilen ironia, kritika gogorra egiten baitio euskal gizartearen zati bati, bere hizkuntza eta hiri propioarekiko duen jarrera hipokrita azalarazita.

Zalantzarik gabe, idazleak *Ehun metrora* dakarren irudikapena Donostia burges eta harroarena da. Lehenean ez bezala, bigarren eleberri honetan hiri euskaldun bat jartzen du ekintzaren erdigunean, baina berriz ere, aurreko garaian gailentzen zen begirada arrotz eta ezezagunari iskin eginik, irakurleak gertutik ezagutzen duen espazio bat ekartzen du, bere konplexutasun guztiarekin, idealizatu gabe. Hala bada, hiri bere herritarren hitzen bidez deskribatzen da batez ere. Egunkarietan argitaratzen den propaganda turistikoak deskribapen topiko eta atemporal jartzen du mahai gainean, eta hiriaren giro zehatz bat erakusten du. Protagonista erail ostean argitaratutako egunkarian azaltzen da itxurakeria eta harrokeria adibiderik esanguratsuenetako bat (Saizarbitoria 1980: 89):

*El paseo de la Concha es a San Sebastián lo que la Croisette es a Cannes, el paseo de los ingleses a Niza, el Boulevard de los Pirineos a Pau, la calle Príncipe a Edimburgo. Paisaje único e inconfundible con otro lugar de la misma especie, que no obstante, cuanto haya podido hacer en su favor la mano del hombre, se debe a la Naturaleza, y, en última instancia a Dios.*

Era horretan, hiritarrek elikatutako topikoari jarraiki, hiri indiferentetzat aurkezten da Donostia. Hiri turistiko, pinpirin, handinahi eta frantsestua ageri da eleberrian, Kantauriko Paris izan nahi duen hiri ertaina. Postalezko agertoki horretan, ordea, tiroketa bat gertatzen da, eta berbenak, festak, poteoa eta aisialdi burgesaren jarduerak gailentzen diren giroa une batez

eten egiten da. Hala ere, ez dirudi plazan isuritako odolak eta heriotzak hiriko bizitza batere aztoratzen duenik, tiroketaren ondorengo eszenek lasaitasun itxura ematen baitute: Donostiaren edertasun zoragarriaren estampak erakusten dira, auzokideek gertaera komentatzen dute ezaxolati, kuadrilla batek ardoa edaten du tiroketaren plazan bertan, eta haurrek “polizia eta lapurretara” jolasten dira odol koagulatuaren gainean.

Eguneroko jarduera ohiko horiek amildegi bat zabaltzen dute espazio bakarrean, Donostiako hirian, derrigorrez elkarbizitza egin behar duten bi mundu oso desberdinen artean. Batetik, gatazka politikoaren inguruan egikaritzen den errealitatea ageri da, pertsonen bizitza baldintzatu eta heriotzaraino ere eramán ditzakeena. Kontrara, itxurakerian ardatzen den zenbait hiritarren bizitza, euren inguruko arazo sozialen aurrean ezikusiarrena egiten dutenak. Bi mundu horiek gurutzatzen direnean eta talka egiten dutenean, biolentzia eguneroko gertaera arrunten parean jartzen da, eta errealitatearen krudela gertzen da bistan, kontraesanak loratuz. Protagonista, konpromiso politikoa duen pertsonaia, kausa nazionalarekin batere konpromisorik ez duen hiri batean hiltzen da, hiribururik euskaldunena izanda ere, hiritarrek euskara eta gaztelania etengabe nahasten dituzten hirian, diktadorearen oporleku izandako hirian, ekonomia turismo espainiarrean oinarritzen duen hirian. Donostiak, beraz, pisu handia hartzen du nobelan espazio urbano sinboliko gisa, iheslariaren bakardadea azpimarratu eta haren heriotzak dakarren sakrifizio ustez absurdoa adierazten baitu (Hernandez Abaitua 2008: 251-252).

Donostiaren irudi indiferenteari kontrajarrita, biolentziaren eremu ere bada hiria. Horren harira, Konstituzio plazaren esanahi sinbolikoak berebiziko garrantzia hartzen du. Izan ere, *Ehun metro* nobelako espazio nagusia denak iheslariaren heriotza espazializatzen du, eta haren bidez gogorarazten aldi oro heriotzaren aurreko ihesaldi saiakera ezinezkoa. Hala, garrantzi semantiko handiko espazioa bilakatzen du etengabeko erreferentzialtasunak (Olaziregi 2001: 25). Plaza perspektiba ugaritatik deskribatzen da liburuan zehar: protagonistaren ikuspegitik, aterabide posible guztiak eta plaza inguratzten duten kaleak aztertzeko; liburuxka turistiko baten perspektibatik, Donostiako Parte Zaharraren edertasuna goresteke; eta indiferentzia azpimarratzeko, ardo batzuk hartzera joan diren txikiteroen eguneroko begiradatik eta “polizia eta lapurretara” jolasten diren haurren ikuskera inuzente-

tik. Esan daiteke Konstituzio plazak collagearen atzealdea osatzen duela, gatazka armatuaren eta gizarte ez-konprometituaren errealtate zatikatuari batasun bat ematen diona.

Halaber errepresioaren, sakrifizioaren eta, berriz ere, indiferentziaren eremua sinbolizatzen du. Errepresio frankistaren ikurtzat jo izan da (Hernandez Abaitua 2008: 251), eleberrian azaltzen den gisa, Frankoren diktadurapean izena aldatu baitzioten altxamenduaren data jarrita: “18 de julio”. Donostiari buruzko folleto turistiko baten bidez ematen da izen-aldaketaren berri (Saizarbitoria 1980: 27):

*La Plaza de la Constitución, ahora conocida con el nombre de Plaza 18 de Julio, abre veintitún arcos en sus fachadas orientadas al Norte y al Sur (...)*

Arroitaren iritzira (2015: 242), memoriagune frankista bat inposatzeko saiakeratzat har daiteke hiriko plaza nagusiaren izen aldaketa. Hori dela eta, eleberrian izendapen hori erabiltzen da, bai eleberria tenporalki frankismoaren garaian kokatzeko, bai espazioa menderakuntzarekin eta bortizkeriarekin lotzeko. Izan ere, plazan hiltzen du poliziak iheslaria, perspektiba desberdinetatik egiten den kontakizunaren arabera, guztiz inguratuta, salbu ateratzeko apenas aukerarik gabe. Hartara, Konstituzio plazak erabateko biolentzia sinbolizatzen du: eraiketa.

Horrekin lotuta islatzen da sakrifizioaren ideia. Izan ere, iheslariak bizirik irteteko inolako paradarik ez duela jakin arren, aurrera jarraitzen du, tiroak entzun eta aurrera jarraitzen du, lurrera zerraldo erori arte. Ezin saihestuzko heriotzaraino korrika ibiltzen dituen ehun metroek bilakatzen dute Konstituzio plaza eleberriko espazio esanguratsuena. Sakrifizioaren eta eraiketa-aren ideiak Konstituzio plazak iraganean izandako funtzioarekin harreman-tzen dute eleberria: zezen-plazarekin (Saizarbitoria 1980: 24).

–Hortxe plazan kiskali zitean.

–Beti zegok zerbait. Eta hiri zer pasatzen zaik.

– Ez diat begirik hertsi erreuma zikin honekin.

(...) Plaza errektangular bat. Haur batzuk bata beltzez jantziak, liburuek, karpetek, zorroek egiten duten piloaren inguruan lurrean

eseriak. Etxe zahar gristatua. Balkoia. Balkoiko atearen goialdean agertzen den numeroa. 108. *La plaza rectangular que en pasados tiempos fue el ágora y centro comercial social y festejero de la ciudad, ofrece la particularidad de que los dinteles de las puerta-ventanas de las fachadas de sus casas están correlativamente numerados en razón de la servidumbre a que estaban sujetos sus correspondientes balcones a servir de palco en la celebración de las corridas de toros...*

Donostiako plaza ezaguna aurretik izandako zezen-plaza gorpuzten da une batzuetan, eta ondorioz, zezenketarekin alderatu izan da iheslariaren hilketa (Kortazar 2013: 251), sakrifizioaren ideia muturreraino eramanez. Abaituak (2008: 251) argitara ekartzen duenez, lotura horretan iheslari euskalduna espainiartasun frankistaren sinbolo den zezen-plazan hiltzeak berebiziko interesa pizten du. Sinbolismo ezagun eta konpartituak garrantzi handiagoa ematen dio plazak espazioaren bidez kontatzen duenari. Izan ere, sakrifizioaren ideia begien parean jartzen du, aterabide segururik gabeko espazioa den heinean. Boterearen ordezkari den poliziak plazan erailtzen du Jose, ihesean dabilen gaztea, toreroak zezena hiltzen duen eran: inguratuta, bakardadean eta heriotza nolabait eragozteko inolako laguntza edo aukerarik gabe. Are, zenbait pasartetan, zezenketaren irudia protagonistaren keinu eta ekintzetan islatzen da, Konstituzio plazak ematen dielarik zentzua gertaera horiei, balkoien zenbakiaren bidez zezen-plazara eramanez irakurlearen gogoia (Saizarbitoria 1980: 80):

Eta eskuak odoletan irristatzen zaizkik lau hanketan hamalaugarren pausoa ematen duanean. Berrogeitazortzi segundo geratzen zaizkik bakarrik begi bat ireki ahal izateko bestea indarrez hertsiz leku koarenganako direkzioa asmatzen saiatzen haizenean. Plaza osoa hire inguruan jiratzen sentitzen duk eta mementu batez interesaturik bezala edo agian harriduraz presentziatzen duk heure gainean errozterearekin menazatzen hauten balkoi buruetako numeroen dantza zirkularra. 108 108 108 108. Altxatu egin nahi duk, baina belauniko ematen duk hamabostgarren pausoa eta aho zabalik lurreko hautsa mihazkatzen duk hamaseigarrena egiterakoan.

Era berean, eta pasarte berberari erreferentzia eginez, Saizarbitoriak nabarmentzen duen hiriaren izaera indiferentea agerian geratzen da Konstitu-

zio plazako gertakarien bidez. Tiroketa bat eta eraiketa bat gertatzen da non eta hiriko plaza nagusian, baina handik gutxira bizitzak berdin jarraitzen du, Arroitzak (2015: 243) adierazten duenez, sakrifizio absurdoaren ideia azpimarratuz. Aurretik aipatu gisa, heriotzaren ostean haurrak “polizia eta lapurretara” jolasean dabilta plaza, pistola imajinarioak erabiliz, helduek eguneroko minekin alderatzen dute jazotakoa (“Hortxe plazan kiskali zitean (...) Ez diat begirik hertsu erreuma zikin honekin.”) eta tiroketa bera Donostiako postal-irudiekin tartekatzen da. Hiriak bere espazio eta jendearen bidez hitz egiten du, gizartearen indiferentzia azaleratzeaz batera gatazkaren gordintasuna erakusten duelarik.

Hitz gutxitan, hiria oinarrizko elementua da *Ehun metro* eleberrian. Saizarbitoriak kontraesanez betetako garai nahasi eta paradoxiko baten lekuko modura erabiltzen du paisaia urbanoa, eta hala, Donostia bera beste pertsonaia bat bilakatzen da liburuaren zenbait pasartetan, nobelaren gako nagusiak ulertzeko ezinbesteko diskurtsoa garatzen baitu. Ildo beretik, espazio urbanoak hiri bakarrean gurutzatzen diren errealitate desberdin eta kontraesanezkoen zoru komun bat jartzeko helburua du, probintzia hiriburuen konplexutasuna eta urbanotasuna azalera ekarriz. Gatazka politikoa gauzatzen den espazioa da hiria, beraz, baina baita gizartearen alderdirik indifereentea eta goi burgesia harroena bizi den lekua ere. Ondorioz, idazlea hiriaz baliatzen da eleberriaren tesi nagusia behin eta berriz azpimarratzeko: errealitate desberdinen elkarbizitza kontraesanezkoa, gizarte ezaxolotia eta borroka armatuak dakarren sakrifizio absurdoa. Argi geratu denez, horretarako Donostiako espazio erreal eta zehatzak ekartzen ditu euskal letretara, eta errealitatean duten balio sinbolikoa baliatuz, funtzio konkretu bat esleitzen dio bakoitzari nobelaren diskurtsoa indartu dezan.

## Ondorioak

*EHD*ren eta *Ehun metro*ren espazioaren azterketatik ondoriozta daiteke Saizarbitoriak mundu modernoaren eta Euskal Herriaren errealitate kaleidoskopiko eta konplexua islatu nahi izan zuela, eta horretako, estilo narratiboaz edota trama zatikatuez gain, agertoki urbano baten

beharra ikusi zuela. Eleberri horietako espazio urbanoek funtzio zehatzak dituzte istorioaren garapenean, eta beraz, hiriak garrantzi diskurtsibo handia hartzen du. Izan ere, espazioen esanahi sinbolikoak eleberriaren balio erantsia dira, baita tramaren puzzlea osatzeko ezinbesteko baldintza ere.

Eleberriotan ez da hiriaren handitasuna ageri, espazio urbanoek ez dute ez lilurarik ez sentimendu arrotzik transmititzen. Argi geratzen da XX. mendean erdialdetik aurrera idatzi direla: hiriak ez dira ez mirariak ezta muntroak ere. Hor daude, eleberrien parte dira, gure bizitzen parte diren moduan: istorioen atzealdeko agertokia osatzen dute, baina trama zeharkatzen dute era berean. Hortaz, atzerrikoak ala bertakoak izan, Saizarbitoriak hiriak irakurlearentzat ezagun izango ziren eran irudikatzeko esfortzua egiten du, kontziente izanik euskal literaturan ez zela aurretik horrelakorik idatzi. Alabaina, ez dira literatura hegemonikoan agertu diren ohiko hiriak, ez dira euskal errealtatetik urrun geratzen diren metropoli edota hiri literario handiak. Hiri ertainak dira, probintzia-hiriak, landa eremuarekin izan ditzaketen harreman edo gatazkak ezkututzen ez dituztenak, baina era berean modernoak eta gatazka propioak dituztenak. Finean, euskal irakurlearentzat errealtate hautemangarri bat irudikatzen dutenak. Hori dela eta, eta *Ehun metron* zentratuta, Donostiak erdigunea hartzen du, eta Saizarbitoriaren ibilbide literarioan ezinbestekoa izanen den espazio baten lehen oinarriak jartzen dira.

Ondorioz, hausnarketa honek Saizarbitoriaren lehendabiziko lanak beste era batera irakurtzera eramane gaitzake: Mendebaldeko tradizioaren logika orokorraren bazterrean geratzen diren literaturei, gureari kasurako, balioko dien urbanotasun formula baten bilaketa gisa, alegia. Izan ere, hiria da Saizarbitoriak idazteko aukeratutako espazioa, hiriaren bidez azaldu nahi dituen mundu modernoaren kontraesanak eta Euskal Herriko gatazkak. Hautu kontzientea da ere, errealtate horiek literaturara ekartzeko exotismoaren bidea edota literatur sistema hegemoniko baten menpeko diskurtsorik erabili ez izana. Bazterrekoa den herri baten gatazkak bere horretan erakustea erabakitzen du, anormala normal irudikatzea, bere anormaltasuna agerian jartzeko. Hautu kontziente horietan datza eleberrigintzan gertatzen den aldaketa espazialaren garrantzia.



Aurretik esan bezala, lehen eleberrietan hartutako norabideak jokoan kanpo uzten du Saizarbitoria, asterisko bat da Mendebaldeko tradizio hegemonikoarentzat, ez baita bazterreko literatureri suposatutako eskema bitarretan sartzen. Arrakala hori 60-70eko hamarkadetan sortutako mugimendu politiko-kulturalek ahalbidetu zuten, identitatearen berreraikuntzan joko-zelai berri bat zabaldu baitzen, eta interesgarria litzateke horrek eskaintzen dituen aukerak arakatzea, gurea bezalako literatureri munduan egoteko beste posizio bat eskuratzen ahal dien heinean.

## Bibliografia

AGIRREAZKUENAGA, Joseba (2002). «Bilboko Lore Jokoen mendeurrena gogoratuz eta garaiko eztabaidak gaurkotuz». *Bidebarrieta*, 11 [Ciudad y nuevos imaginarios culturales] (2002): 9-25.

ALDEKOA, Iñaki (1998). *Mendebaldea eta narraziogintza*, Donostia: Erein.

——— (2007). «Txillardegi: Leturiaren egunkari izkutua», in “*Leturiaren egunkari ezkutua*” eleberraren ekarpena XX. mendeko euskal narraitibaren testuinguruan. Bilbo: Euskaltzaindia.

——— (2008). *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Erein.

——— (2015). *68ko belaunaldia*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

AMEZAGA, Asier (2016). *Harritik herrira. Gabriel Arestiren paperak euskal kultura eta gizartean 1954-2014* (Doktorego tesia). Bilbo: UPV/EHU.

ANSA, Elixabete (2019). *Mayo del 68 vasco. Oteiza y la cultura política de los sesenta*. Iruñea: Pamiela.

ARESTI, Gabriel (1962). «Jainkoa jaio da Otxarkoagan (Gizonaren bihotzeko bide bihurriak nolakoak diren aditzera ematen duen ipui itsusia)», *Egan*, 4/6 (1962): 214-219.

——— (1967). *Euskal harria*. Bilbo: Kriselu.

ATUTXA, Ibai (2012). *Kanonaren gaineko nazioaz*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

AZÚA de, Félix (1992). *Baudelaire y el artista de la vida moderna*. Iruñea: Pamiela.

CASANOVA, Pascale (2001). *La República mundial de las letras*. Barcelona: Anagrama.

FUSI, Juan Pablo (1975). *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*. Madrid: Turner.

GABILONDO, Joseba (2013). *NY -Martutene. Euskal postnazionalismoaren utopiaz eta globalizazio neoliberalaren krisiaz*. Leioa: EHUko Argitalpen Zerbitzua.

GONZÁLEZ PORTILLA, Manuel (1988). «Aspectos de la industrialización del País Vasco», *Ekonomiaz*, 9-10 (1988): 173-188.

——— (2015). *La otra industrialización del País Vasco: las pequeñas y medianas ciudades: capital humano e innovación industrial*. Leioa: EHUko Argitalpen Zerbitzua.

HERNANDEZ ABAITUA, Mikel (2008). *Saizarbitoriaren lehen eleberrigintza*. Leioa: EHUko Argitarapen Zerbitzua.

KORTAZAR, Jon ed. (2013). «Homenaje: Saizarbitoria y su mundo», *Cuadernos de Alzate*, (2013): 46-47.

LASAGABASTER, Txema (1986). *Antología de la narrativa vasca actual*. Barcelona: Ediciones del Mall.

MATAS, Àlex (2010). *La ciudad y su trama. Literatura, modernidad y crítica de la cultura*. Madrid: Lengua de Trapo.

OLAZIREGI, Mari Jose (2001). *Ramon Saizarbitoriaren unibertso literarioa*. Bilbo: Labayru Ikastegia.

OTEGI, Karlos (1976). *Pertsonaia euskal nobelagintzan*. Bilbo: Gero.

RETOLAZA, Iratxe (2005). “Literatura eta hiriak”, *Berria* [2005-07-31].

SAIZARBITORIA, Ramon (2007). *Egunero hasten delako*. Donostia: Erein.

——— (1980). *Ehun metro*. Zarautz: Kriselu.

SARASOLA, Ibon (1971). *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Lur.

SARRIONANDIA, Joseba (2010). *Moroak gara behelaino artean?* Iruñea: Pamiela.

SHARPE, William, WALLOCK, Leonard (1987). «From “Great Town” to “Nonplace Urban Realm”: Reading the Modern City», in *Visions of the modern city: essays in history, art, and literature*. Baltimore: Johns Hopkins University Press.

SPIVAK, Gayatri (2009). *¿Pueden hablar los subalternos?* (itzul. Manuel Asensi), Bartzelona: Macba.

WILLIAMS, Raymond (2001). *La ciudad y el campo*. Buenos Aires: Editorial Paidós.